2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 03 DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEAREN ZUZENDARITZA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 03 DIRECCIÓN DEL GABINETE DEL DIPUTADO GENERAL

SAILAREN MEMORIA

I. MEMORIA

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 8/2016 Foru Dekretuak Diputatu Nagusiaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen du, eta hari atxikita dago Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritza. Haren eginkizunen artean hauek daude:

A) Diputatu Nagusiaren Kabineteko Zuzendaritzak diputatu nagusiari lagundu behar dio erakunde ordezkaritzan, gobernu ekintzaren zuzendaritzan, sailen koordinazioan, eta Sailari atxikitako zerbitzuen zuzendaritzan. Horrez gainera, eginkizun hauek dauzka:

1. Diputatu nagusiaren eskumeneko gai ofizialez arduratzea laguntza profesionalari, aholkularitzari eta kontsultategiari, bai barneko bai kanpokoari, dagokionez.
2. Bere bulegoaren eta idazkaritzaren antolakuntza, korrespondentzia ofiziala eta bere agirien artxibatze lana koordinatzea.
3. Foru aldundiaren gobernu organoei informazioa ematea aldundiaren sailen interesekoak diren izaera publikoko gaiei buruz, eta haien berri zuzena izateko beharrezkotzat jotzen diren azterlanak eta kudeaketak egitea.
4. Diputatu nagusiari laguntzea gobernu ekintzaren zuzendaritzan eta erakundeen koordinazioan.
5. Erakundeen arteko edo sail anitzeko foru planen prestakuntza, programazioa eta kudeaketa koordinatzea.
6. Agintarien eta beste pertsona batzuen eta foru ondarearen babeserako zerbitzuak zuzentzea.
7. Diputatu nagusiak agindutako aholkularitza eta azterketa eginkizunak, bere eskumenen barruan.

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

Por Decreto Foral 8/2016, del Consejo de Diputados de 9 de febrero, se aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento de Diputado General, a la que está adscrita la Dirección del Gabinete del Diputado General. Dentro de las funciones asignadas a la misma figuran las siguientes:

A) A la Dirección del Gabinete del Diputado General le corresponde la asistencia al Diputado General en materia de representación institucional, dirección de la acción de gobierno, coordinación departamental y la dirección de los Servicios a ella adscritos y las siguientes funciones:

1. Entender de los asuntos oficiales que competen al Diputado General en cuanto a asistencia profesional, asesoría y consultoría, tanto interna como externa.
2. Coordinar la organización de su despacho y secretaría, la correspondencia oficial y el archivo de la documentación que le es propia
3. Informar a los órganos de Gobierno de la Diputación Foral sobre las materias de carácter público que pudieran interesar a las competencias de los distintos Departamentos, realizando los estudios y gestiones que se consideren necesarias para un correcto cono -cimiento de las mismas.
4. Apoyar al Diputado General en la dirección de la acción de gobierno y en la coordinación departamental.
5. Coordinar la planificación, programación y gestión de los planes forales de ámbito interinstitucional o pluridepartamental.
6. Dirigir los servicios de seguridad de autoridades y otras personas y del patrimonio foral.
7. Realizar, en el ámbito de su competencia, las funciones de asesoramiento e informe que le encomiende el Diputado General.

2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 03 DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEAREN ZUZENDARITZA

8. Idazkaritza Teknikoaren eta Herritarren Arretarako Zerbitzuaren laguntzaz, zuzendaritzaren aurrekontua kudeatzea.

9. Foru enpresa publikoen eta erakunde autonomoen jarraipena egitea, bai eta foru aldundiak ordezkaritza daukan erakunde guztiena ere.

10. Herritarren partaidetza eta gardentasuna sustatu eta koordinatzea Arabako Foru Aldundian eta foru sektore publikoan.

B) Kabinetearen Zuzendaritzak aldundiaren zerbitzu juridiko zentralak zuzendu behar ditu; horrez gainera eginkizun hauek dauzka:

1. Aldundiaren gobernu organoei beren eskumen eta zereginak betetzeko behar duten laguntza juridikoa ematea.

2. Beste zuzendaritzak koordinatzea eta, hala behar izanez gero, haiei laguntza ematea beren jarduera juridikoan.

3. Kasuan kasuko alorrengatik eskudun diren sailetako zuzendaritzarekin lankidetzan proposamenak egitea foru araurako ekimenekin aldundia ados dagoen edo ez adierazteko eta haren iritzia emateko.

4. Iritzia ematea eskumenak, eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeko prozesuei buruz, bai eta udalekin edo beste entitate batzuekin eginkizunak edo zerbitzuak laga edo eskualdatzeko egiten diren prozesuei buruz ere, eta azaroaren 25eko 27/1983 Legean xedatutako Transferentzien Batzorde Mistoan idazkaritza lana egitea.

5. Txostenak egitea edo zuzentzea, proposamenak egitea, eta, hala badagokio, ebazpenak onartzea lanak arautzeari eta prestatzeari buruz, proiektu arautzaileen eta arauzkoen kalitateari buruz, eta foru aldundiko organoen administrazioko ebazpenei buruz.

6. Herritarrentzako harrera eta informazio zerbitzuaren plangintza orokorra egitea.

7. Foru aldundiak sozietate, organismo eta erakundeetan izango dituen ordezkarien

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 03 DIRECCIÓN DEL GABINETE DEL DIPUTADO GENERAL

8. Gestionar, con el apoyo del Servicio de Secretaría Técnica y Atención Ciudadana, el presupuesto de la Dirección.

9. Realizar el seguimiento de las Empresas públicas forales y Organismos Autónomos y en las demás Entidades en que esté representada la Diputación Foral.

10. Promover y coordinar la participación ciudadana y la transparencia en la Diputación Foral de Álava y en el sector público foral.

B) A la Dirección del Gabinete del Diputado General le corresponde dirigir los servicios jurídicos centrales de la Diputación y ejercer las siguientes funciones:

1. Prestar a los Órganos de Gobierno de la Diputación la asistencia jurídica necesaria para el ejercicio de sus competencias y funciones.

2. Coordinar, y asistir, en su caso, a las demás Direcciones en su actividad jurídica.

3. Preparar en colaboración con las Direcciones de los Departamentos competentes por la materia, las propuestas sobre el criterio y conformidad, o disconformidad de la Diputación con las iniciativas normativas que lo requieran.

4. Informar los procesos de traspaso de competencias, funciones y servicios y desempeñar la Secretaría de la Comisión Mixta de Transferencias prevista en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, y de las que se constituyan con municipios u otras entidades al objeto de ceder o traspasar funciones o servicios.

5. Dirigir o elaborar informes, realizar propuestas, y, en su caso, aprobar resoluciones sobre la ordenación y preparación de los trabajos y la calidad de los proyectos normativos y reglamentarios y de las resoluciones administrativas de los distintos órganos de la Diputación.

6. Realizar la planificación general de la atención e información ciudadana.

7. Preparar en colaboración con las Direcciones de

izendapena prestatzea kasuan kasuko saileko zuzendaritzekin lankidetzan.

8. Lankidetza hitzarmenak argitaratzeko agintzea.

9. Lurralde historikoaren eskumen interesak defendatzeko, legeetan, arauetan eta erregelamenduetan egin beharreko aldaketetarako ekimenak proposatzea.

Hona hemen lege zerbitzu orokorrak: Minoiak; Aldundiaren Idazkaritza Orokorra; Lege Aholkularitza; Araubidezko Garapena eta Batzar Nagusiekiko Harremanak; Arabako Lege eta Administrazio Erakundea; Idazkaritza Teknikoa eta Herritarrak Atenditzea; Berdintasuna, Lankidetza eta Kulturartekotasuna.

Aldundiaren Idazkaritza Orokorrak fede publikoa eman du, korporazioaren zerbitzu eta bulegoek egindako ziurtagiriak luzatuta, haiek ondorioak eragin ditzaten erakundeetan. Halaber, xedapenen legezkotasun kontrolari buruzko txostenak aztertu eta egin dira. Era berean, xedapenen legezkotasunari buruzko txostenak ikertu, aztertu eta egin dira. Honako hauek jasotzen dituzten liburukiak egin dira, sailen eta zuzendaritzek hartutako ebazpenen arabera sailkatuta: zerga premiazko araugintzako dekretuak; Diputatuen Kontseiluaren foru dekretuak eta erabakiak; diputatu nagusiaren foru dekretuak, eta foru aginduak.

Lege Aholkularitza Zerbitzuak Arabako Foru Aldundiaren defentsa juridikoa du beregain, korporazioa demandatzaile edo demandatu bezala ageri den edozein arloko prozedura judizialetan. Eskatu zaizkien zuzenbide arloko txostenak egin ditu, eta aholkularitza juridikoa eman die foru aldundiko bulego eta zerbitzuei.

Araubidezko Garapenerako eta Batzar Nagusiekiko Harremanetarako Zerbitzuak funtzio hauek bete behar ditu:

1) Administrazioko arauzko xedapen nahiz ebazpenak eta parlamentu bultzada eta kontroleko ekimenak egin, proposatu eta horien berri ematea.

los Departamentos competentes la designación de representantes de la Diputación Foral en sociedades, organismos y entidades.

8. Ordenar la publicación de los Convenios de Colaboración.

9. Proponer las iniciativas de modificaciones legales, normativas y reglamentarias convenientes para la defensa de los intereses competenciales del Territorio Histórico.

Configuran los servicios jurídicos centrales los Servicios de Miñones, Secretaría General de la Diputación, Asesoría Jurídica, Desarrollo Normativo y de Relaciones con las Juntas Generales, Organismo Jurídico Administrativo de Álava, Secretaría Técnica y Atención Ciudadana, e Igualdad, Cooperación e Interculturalidad.

Por la Secretaría General de la Diputación, se ha dado fe pública, mediante la emisión de los distintos Certificados emitidos por los Servicios y Negociados de la Corporación, a fin de que surtan efectos ante distintas instancias. Se ha procedido, igualmente, al estudio, examen y emisión de los correspondientes informes de control de legalidad de las distintas disposiciones. Se han elaborado los diferentes tomos que recopilan los Decretos Normativos de Urgencia Fiscal, Decretos Forales y Acuerdos del Consejo de Diputados, Decretos Forales del Diputado General, Ordenes Forales, desglosados por Departamentos y Resoluciones adoptadas por las diferentes Direcciones.

Por lo que respecta al Servicio de Asesoría Jurídica, se ha procedido a la defensa jurídica de la Diputación Foral de Alava en procedimientos judiciales de cualquier orden en los que la Corporación figura como demandante o demandada. Se han emitido los informes en Derecho que les son solicitados y efectuado el asesoramiento jurídico a las diferentes Dependencias y Servicios de la Diputación Foral.

El Servicio de Desarrollo Normativo y Relaciones con las Juntas Generales, tiene encomendadas las siguientes funciones:

1) De informe, propuesta y elaboración de Disposiciones reglamentarias y resoluciones administrativas y de las iniciativas de impulso y

2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 03 DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEAREN ZUZENDARITZA

2) Aldundia eta Batzar Nagusiak koordinatzea.

3) Dokumentazio juridikoko lanak egitea.

Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen beste eginkizun bat da zerga eta dirubilketa arloan administrazio berrikuspena egitea, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako ekonomia itunaren bosgarren xedapen gehigarriak lurralde historikoetako erakundeei egozten dien eskumena erabiliz. Estatuko ogasun publikoak eginkizun horretarako dituen ahalmen eta eskubide berak aitortzen dizkie lege horrek lurralde historikoetako erakundeei. Hura garatzeko eman zen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako tributuei buruzkoak, xedatzen duenez, tributuen kudeaketa, likidazio eta dirubilketa egintzen aurkako erreklamazioak ebazteko ardura egintzak onartu zituen organoa ez den beste bati emango zaio, eta organo hori Arabako Lege eta Administrazio Erakundea da. Gainera, partikularren arteko erreklamazioak eta partikularren eta erakunde publikoen artekoak ebazten ditu, zergen egozketak, atxikipenak eta diru itzultzeak direnean tartean; baita zuzenbide publikokoak diren, zerga izaerarik ez duten eta Arabako Foru Aldundiaren edo beste administrazio batzuen –zeinekin dirubilketa hitzarmena baitago- aldeko diru sarreren aurka sustatutako erreklamazioak ere. Bukatzeko, lurralde historikoko toki erakundeek gai horiei buruz onartzen dituzten egintzen aurkako erreklamazioez ere arduratzen da, berrikusteko foru jurisdikziora berariaz eta oro har bildutako kasuetan eta kudeaketa hitzarmenen kasuetan.

Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuak honako betebehar hauek ditu besteak beste: Gobernuaren eta Foru Administrazioaren organoei aholkuak ematea beste administrazio publikoekin sortzen diren eskumen gatazketan, eta foru eskumenetan eragina duten lege edo erregelamendu proiektuei buruzko txostenak egitea, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialaren argitalpena kudeatzea; Gizartearekiko Komunikaziorako Bulegoa, Agirien Irteera eta Sarrera Erregistroa eta Herritarrak Atenditzeko Atala zuzentzea, bai eta Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Idazkaritza

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 03 DIRECCIÓN DEL GABINETE DEL DIPUTADO GENERAL

control parlamentario.

2) Unidad de coordinación de la Diputación con las Juntas Generales.

3) Trabajos de documentación jurídica.

El Organismo Jurídico Administrativo de Álava tiene encomendada la función de revisión administrativa en materia tributaria y recaudatoria, en ejercicio de la competencia que la Disposición Adicional Quinta del Concierto Económico aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, atribuye a las Instituciones de los Territorios Históricos, a quienes reconoce las mismas facultades y prerrogativas que al respecto tiene la Hacienda Pública del Estado. En desarrollo de la misma, la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, prevé que la resolución de las reclamaciones contra los actos de gestión, liquidación y recaudación de los tributos se encomendará a órgano distinto del que aprobó aquéllos y que este órgano se denomina Organismo Jurídico Administrativo de Álava. Por extensión, resuelve además las reclamaciones entre particulares o entre particulares e Instituciones Públicas con ocasión de repercusiones, retenciones o reembolsos de impuestos, y las promovidas contra la recaudación ejecutiva de ingresos de derecho público de naturaleza no tributaria a favor de la Diputación Foral de Álava o de otras Administraciones con las que exista convenio de recaudación. Finalmente, conoce también de las reclamaciones contra los actos que sobre este tipo de materias aprueban las Entidades Locales del Territorio Histórico en los casos de acogimiento expreso y general a la jurisdicción revisora foral y de convenios de gestión.

El Servicio de Secretaría Técnica y Atención Ciudadana tiene entre sus cometidos asesorar a los órganos de Gobierno y de la Administración Foral en las cuestiones de conflictividad competencial que se susciten con otras Administraciones Públicas, e informar los proyectos legislativos o reglamentarios que afecten a las competencias forales, la gestión de la edición del Boletín Oficial del Territorio Histórico de Alava así como la dirección de la Oficina de Comunicación con la Sociedad y del Registro de entrada y salida de documentos y atención al público, la Secretaría de la Comisión Consultiva de la

2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 03 DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEAREN ZUZENDARITZA

eta Hitzarmenen eta Ordezkarien Erregistroak ere, sailaren administrazio kontratuak eta dirulaguntza jarduera kudeatzea, sailaren aurrekontu proiektua egitea eta sailaren ekonomia, administrazio eta kontabilitate arloak kudeatzea eta kontrolatzea.

Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuaren eginkizun dira berdintasun, garapenerako lankidetza eta kulturartekotasun arloko jardueren programa edo plana diseinatzea, berdintasun alorreko jardueren plangintza, egikaritzea eta jarraipena koordinatzea aldundi barruan eta udaletan eta gainerako toki erakundeetan berdintasun politikak sustatzea eta finkatzea.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

KONTRATAZIOA

ALDIZKARIAK, LIBURUAK ETA HARPIDETZAK	22.810,27
ARBITRAJE BATZORDEKO ORDEZKARIAREN GASTUAK	3.374,00
ALDIZKARI OFIZIALETAN IRAGARKIAK ARGITARATZEA	23.618,49
SMITHSONIAN FOLKLIFE FESTIVAL 2016	223.299,67
ERAIKINETAKO ZAINTZA ETA SEGURTASUNA	639.412,72
ERREGISTRO, ERREKURTSO ETA TASA GASTUAK	136.378,63
KANPOKO LANAK ETA AZTERLAN ETA IRIZPENAK	25.237,31
SASKI BASKONIA SAD	2.099.537,00
GARDENTASUNA ETA PARTE HARTZEA	46.950,81
DEPORTIVO ALAVÉS SAD	499.905,00
ARABERRI BASKET CLUB BABESTEA	75.000,00
ARASKI AES BABESTEA	50.000,00
CLUB DEPORTIVO ZUZENAK BABESTEA	37.500,00

DIRULAGUNTZAK

IRAB. XEDERIK GABEKO ERAKUND. LAGUNTZAK	47.000,00

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 03 DIRECCIÓN DEL GABINETE DEL DIPUTADO GENERAL

Administración Foral, los Registros de Representantes, gestionar la contratación administrativa y la actividad subvencional del Departamento, la elaboración el Proyecto de Presupuesto del Departamento, y la realización del control y la gestión económica, administrativa y contable del mismo.

El Servicio de Igualdad, Cooperación e Interculturalidad tiene encomendada la función de diseñar la programación o planificación de la actuación en materia de igualdad, cooperación al desarrollo e interculturalidad, coordinar internamente la planificación, ejecución y seguimiento de las actuaciones en materia de igualdad, e impulsar la promoción y consolidación de las políticas de igualdad en los ayuntamientos y demás entidades locales.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

CONTRATACIÓN

REVISTAS, LIBROS Y SUSCRIPCIONES	22.810,27
GASTOS VOCAL COMISION ARBITRAL	3.374,00
INSERCION ANUNCIOS BOLETINES OFICIALES	23.618,49
SMITHSONIAN FOLKLIFE FESTIVAL 2016	223.299,67
VIGILANCIA Y SEGURIDAD DE EDIFICIOS	639.412,72
GASTOS REGISTROS, RECURSOS Y TASAS	136.378,63
TRABAJOS EXTERNOS, ESTUDIOS Y DICTAMENES	25.237,31
SASKI BASKONIA S.A.D.	2.099.537,00
TRANSPARENCIA Y PARTICIPACION	46.950,81
DEPORTIVO ALAVES S.A.D.	499.905,00
PATROCINIO ARABERRI BASKET CLUB	75.000,00
PATROCINIO ARASKI A.E.S.	50.000,00
PATROCINIO CLUB DEPORTIVO ZUZENAK	37.500,00

SUBVENCIONES

AYUDAS A INSTITUCIONES SIN ANIMO LUCRO	47.000,00

2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 03 DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEAREN ZUZENDARITZA

EHU FUNDAZIOA: NAZIOARTEKO ZUZ. IKASTAROAK	10.000,00
FERNANDO BUESA FUNDAZIOA	70.000,00
DIRULAG.: GIZA ESKUBIDEAK ETA MEMORIA HISTORIKOA	79.090,51

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 03 DIRECCIÓN DEL GABINETE DEL DIPUTADO GENERAL

CURSOS DCHO.INTERNACIONAL FUNDACION UPV	10.000,00
FUNDACION FERNANDO BUESA	70.000,00
SUBV.DERECHOS HUMANOS Y MEMORIA HISTORICA	79.090,51